



ORDENANTZA 7. ZK

AGURAINGO UDALA

ARABAKO LURRALDEA

7.- ESTABLEZIMENDUEN HIRIGINTZA LIZENTZIA LORTZEAGATIK EDO UDALAK EGIAZTAPEN JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauarekin bat etorritik, ordenantza honen arabarako egokitzapenak egiteko lizentziaren tasa ezarri eta exijitzen du. Ordenantza honen zati da aplikatu beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina.

2. Artikulua.

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

2. ZERGA GAIA

3. Artikulua.

1.- Tasa honen zerga gaia da industriako eta merkataritzako establezimenduek udalen ordenantzetan eta arautegi orokorretan establezimenduen funtzionamendu egokirako eskatzen diren lasaitasun, sanitate eta osasungarritasun baldintzak betetzen dituzten egiaztatze eta bateratzeko udalak egiten duen jarduera teknikoa nahiz administratiboa. Izan ere, udalak establezimendua irekitzeko lizentzia eman dezan hori bete behar da aldez aurretik. Halaber, zerga gaia da udal teknikariek burututako araudiari egokitzen zaion jardueragatik egiten diren egiaztapen eta ikuskapen lanak, baldin eta jarduera hori egiteko ez bada zertan lizentziarik eskatu, hau da, nahikoa bada aldez aurretik jakinaraztea edo zinpean aitortzea jarduera egingo dela.

2.- Hori horrela, honakoetan esango da establezimendua irekitzen dela:

- a) Jardunean hasteko establezimendua lehenengo aldiz instalatzen denean.
- b) Establezimenduko jarduera aldatu edo handitzen denean, nahiz eta titularra ez aldatu.
- c) Establezimendua handitzen denean, eta bertan edozein aldaketa egiten denean, baldin



eta aldaketak artikuluko honen 1. zenbakiak adierazitako baldintzetan eraginik badu. Kasu horretan, berriro egiaztatu beharko da baldintza horiek guztiak betetzen diren ala ez.

3.- Industriako edo merkataritzako establezimendua izateko, etxebizitzarako erabilera soilik ez duen eraikuntza bizigarria izango da, jendearentzat irekia edo itxia bada ere, eta era berean:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (edo Lizentzia Fiskala) behar duten fabrika, artisautza, merkataritza, eraikuntza eta zerbitzuen inguruko enpresa jardueretarako erabiltzen bada.

b) Jarduera horietarako erabiltzen ez bada ere, horien lagungarri edo osagarri gisa erabiltzen bada, edo horiekin harremanak izanik onurak edo aprobetxamendua ematen dien jardueretarako baliatzen bada, besteak beste, gizarte egoitzak, agentziak, entitate juridikoen ordezkariak edo sukurtsalak, idaztokiak, bulegoak, langelak edo estudioak.

3. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

Zerga honen menpe dauden subjektu pasibo izango dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 33. artikuluko aipatzen dituen pertsona fisiko nahiz juridikoak eta erakundeak, baldin eta garatu nahi dituzten jardueren titularrak badira edo, hala badagokio, jarduera hori edozein industria eta merkataritza establezimendutan garatzen bada.

5. artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak.

4. KUOTA

6. artikulua.

Eranskinean jasoriko tarifa taularen arabera eta lokal bakoitzeko eskatuko da tasa.

Jarduera batek irekitzeko bi baimen lortu beharra badu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da.

Zergapeko lokalean garatu beharreko jarduera aldatu edo handitu nahi izanez gero, tasaren ondorio den kuotatik lehenengo irekiera zerga dela-eta ordaindutakoa kenduko da, bai eta jarduerak gerora izandako aldaketengatik edo handitzeengatik ordaindutakoa ere. Ordaindu beharrekoa aldea izango da.



Lizentzia eman aurretik eskatzaileak eskaeran atzera egin badu, adierazitako kuoten ehuneko 50 ordaindu beharko du, baldin eta udal jarduera ordurako abian bada.

Lizentzia ez ezpada zinpeko aitorpena edo aldez aurreko jakinarazpena beharrezkoa den jarduerentzat kasuan kasuko tasa eskatuko da, udal teknikariek egindako ikuskapen jardueragatik, hain zuzen ere, garatu beharreko jarduera ea bat datorren indarreko araudiarekin egiaztatze egindako ikuskapen jardueragatik.

5. SORTZAPENA

8. artikulua.

1.- Zerga gaia den udal jarduera hasten denean sortzen da tasa eta zerga ordaintzeko beharra. Hori dela eta, irekitzeko baimen eskaera aurkezten den egunean joko da hasiztat udal jarduera, baldin eta subjektu pasiboak baimena eskatzen badu.

Arloko legeek ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatze ekintzek ere sortzen dute tasa, baldin eta aldez aurretik baimena behar ez duten edo aldez aurretik kontrolatu behar ez diren jarduerak badira.

2.- Establezimendua aipaturiko baimenik gabe ireki bada, udalak behar duena egingo du establezimenduak eska daitezkeen baldintzak betetzen dituen ala ez erabakitzeko. Behar duena egiten hasten denean bertan sortuko da tasa. Gainera, establezimendua irekitzeko edo, baimen ematerik ez balego, establezimendua ixteko espedienteari hasiera emango zaio.

3.- Ordaintzeko obligazioa behin sortuta, eskatzaileak tasa ordaindu beharko du beti, eskatutako baimena ukatu edo eman establezimenduaren baldintzak aldatu ostean eman bazaio ere. Eman zaion baimenari uko egin edo baimenean atzera egiten badu ere, tasa ordaintzeko obligazioa izango du.

6.- KUDEAKETA

9. artikulua. Aitorpena.

1.- Industria- edo merkataritza-establezimendua irekitzeko lizentzia lortu nahi dutenek, aldez aurretik, dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute Erregistro Orokorrean, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak zehaztuta. Eskabidearekin batera, alokairu-kontratua edo lokala erosteko titulua aurkeztu beharko dute. Azken kasu horretan, lokalak katastro-baliorik ez duen, erosteko prezioa edo, hala badagokio, lokala eraikitze kostua adierazi beharko dira.

2.- Irekitzeko lizentziaren eskaera egin ondoren establezimenduan garatu beharreko jarduera aldatzen edo handitzen bada, edo establezimendu horrek proiektatutako baldintzak aldatzen badira edo hasieran aurreikusitako lokala handitzen bada, aldaketa



horien berri eman beharko zaio udal-administrazioari, aurreko zenbakian aurreikusitako aitorpenean eskatzen den xehetasun eta irismen berarekin.

3.- Aldez aurreko baimenik edo kontrolik behar ez duten jarduerak direnean, jardueraren titularrak aldez aurreko jakinarazpena edo zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du udaletxean.

10. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

Udal-jarduera amaitutakoan, eta irekitzeko lizentziari buruzko udal-ebazpena eman ondoren, tasaren likidazioa egingo da, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, Udal Kutxetan zuzenean sar dezan, Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean adierazitako ordainketa-bideak eta epeak erabiliz.

Emandako lizentziak eta tasak iraungitzat joko dira, baldin eta, eman ondoren, establezimendua edo lokala ireki gabe hiru hilabete baino gehiago igarotzen badira, edo horiek ireki ondoren, berriro ixten badira edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja emanda badaude sei hilabetez edo gehiagoz, salbu eta planteatutako kasuengatik edo irekitzea atzeratzen duten edo adierazitako denboraz ixtera behartzen duten zirkunstantziengatik kontuan hartu beharreko ezinbesteko kasuetan.

Aurretiazko baimenik edo kontrolik behar ez duten jarduerak direnean, eta udal-teknikariek dagokion egiaztapen-egintza egin dutenean, Udalak tasari dagokion likidazioa egingo du, eta artikulua honen lehen paragrafoan ezarritako moduan jakinaraziko da.

Ikuskapena udal aparejadoreak egingo du, aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta 15 eguneko epean. Ikuskapena egin ondoren, dokumentu bat egingo da, jarduera egiteko baldintza guztiak betetzen dituen edo baldintza horiek betetzeko aldaketak egin behar dituen adierazteko. Aldaketak behar izanez gero, 30 egun naturaleko epea emango zaio akatsak konpontzeko, eta Udalak jarduera berriro ikuskatu beharko du baldintzak bete arte.

7. HOBARIAK

11. artikulua.

Ordenantza honetako A) eta B) idatz-zatietan jasotako eta 0 eta 100 m² bitarteko azpiataletan eta 100 eta 250 m² bitarteko azpiataletan sartzen diren establezimenduek, banketxeek eta/edo finantza-erakundeek izan ezik, % 50eko hobaria izango dute tasa horretan. Horretarako, dagokion eskaera egin beharko dute, eta Udalak dagokion erabakia hartu beharko du.

Eskaera 2022ko ekitaldiaren barruan egin beharko da.



VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

12. Artikulua

Tributuen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasuan kasuko zehapenei dagokienez, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, bertan adierazten den egunean behin betiko onartu zena, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.



ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ERANSKINA

TARIFAK

A) Jarduera-espediterik ez duten jardueri buruzko legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, erabilera-aldaketarik gabe:

| | | |
|---------------------------------------|--------|------|
| - 0 eta 100 metro kuadro bitartean: | 222,42 | euro |
| - 100 eta 250 metro kuadro bitartean: | 248,60 | euro |
| - 250 metro kuadro baino gehiago | 416,27 | euro |

B) Jarduerari buruzko legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, jardueraren aurreiazko jakinarazpena behar duten jarduera sailkatuetan:

| | | |
|---------------------------------------|--------|------|
| - 0 eta 100 metro kuadro bitartean: | 454,33 | euro |
| - 100 eta 250 metro kuadro bitartean: | 538,81 | euro |
| - 250 metro kuadro baino gehiago: | 626,79 | euro |

C) Jarduera-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak eta jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatuetan sektoreko legerian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea:

| | | |
|---------------------------------------|----------|------|
| - 0 eta 100 metro kuadro bitartean: | 461,37 | euro |
| - 100 eta 250 metro kuadro bitartean: | 922,76 | euro |
| - 250 metro kuadro baino gehiago: | 2.308,93 | euro |

Establezimenduak Irekitzeko Lizentziagatiko Tasa Arautzen duen Ordenantza Fiskala behin betiko onartu zen 2021eko azaroaren 25ean. Eranskin honetan jasotako tarifak horren zati dira.

Vº Bº
ALKATEA

IDAZKARIA,